

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure produktuak, baso anti-droga denak, gaur egungo eta oso normalizatua dagoen arazo larriak konpontzeko aukerabide egokia iruditzen zaigu.

Egia jakina da oraindik eraso sexista eta iruzur ugari ematen direla gure jai-arloetan. Biktima mozkorrak (gehienetan emakumeak) ahultzeko nahietan, oraindik droga erasoak gertatzen dira: zu konturatu gabe, zure basoan drogaren bat botaz. Horrela, zure gaineko kontrola hartu eta zurekin era aske batean jokatu ahal izango dute, zuk ezin izan baituzu baldintzarik edo ukapenik jarri.

Jaietako basoekin alderatuta, berriro erabili dezakezulaz gain (droga bota ez badizute), gure produktu den honek zenbait droga identifikatu ahal izango ditu. Modu honetan, zure segurtasuna handituko du, era seguru eta erosoagoan disfrutatu ahal izanik.

Basoa material biodegradagarri batekin egina egongo da, eta drogaren substantzia identifikatutakoan, desegin egingo litzateke. Basoaren jabeak droga ahoratzea ekidituz. Horretaz gain, mosketoi bat edukiko du basoak, edozein tokitara eramateko eroso eta lapurtzeko zailagoa izan dadin.

